Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
añarbe urak aguas
"Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia-Financiado por la Unión Europea-NextGenerationEU"

AGUAS DEL AÑARBE – AÑARBEKO URAK, SA-REN GOI-BANAKETA SAREETAN IHESAK DETEKTATZEKO GAILUAK INSTALATZEKO KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANA – EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUA - NEXT GENERATION EU"

Donostia, 2025eko maiatza

AGUAS DEL AÑARBE – AÑARBEKO URAK, SA-REN GOI-BANAKETA SAREETAN IHESAK DETEKTATZEKO GAILUAK INSTALATZEKO KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANA – EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUA - NEXT GENERATION EU"

AURKIBIDEA

1. AURREKARIAK 3
2. AUSA-REN GOI-SAREAREN EZAUGARRIAK 4
3. EKIPOEN KOKAPENA 4
4. HIDROFONO SISTEMAREN BALDINTZA TEKNIKOAK 6
   4.1 Ezaugarri orokorrak 6
   4.2 Hidrofonoak 7
   4.3 Komunikazioak 7
   4.4 Zerbitzaria eta kudeaketa-plataforma 8
5. EKIPOEN JARRAIPENA ETA BERMEA 9
6. AUSA-ko langileen prestakuntza 9
7. DATUEN KUDEAKETA-ZERBITZUA – SISTEMAN TXERTATU ETA DOIKUNTZAK EGIN 10
8. GIZA-BALIABIDEAK 10
9. ETIKETATZE BERDEA ETA ETIKETATZE DIGITALA 10
10. INGURUMENENA KALTE ESANGURATSURIK EZ ERAGITEKO PRINTZIPIOA (DNSH) 10
11. KOMUNIKAZIO BETEBEHARRAK 11

AGUAS DEL AÑARBE – AÑARBEKO URAK, SA-REN GOI-BANAKETA SAREETAN IHESAK DETEKTATZEKO GAILUAK INSTALATZEKO KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANA – EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUA - NEXT GENERATION EU"

5. osagaia, SEEPeko 1. inbertsioa

A-2.3.1. "Edateko ura banatzeko hornidura-sareen sektorizazioa"

1. AURREKARIAK

"Hornidura-sistemaren digitalizazioa" deritzon PERTE laguntzaren 2. lan multzoan zehazten diren jardueren artean "2.3 Hornidura-sistemako datuen eta aldagaien kontrola eta zehaztea" deritzona aurkitzen da, eta honen barruan dago lizitazio honen xede den "2.3.1 Edateko ura banatzeko hornidura-sareen sektorizazioa".

2.2.1 jarduketan Horniduraren Plan Integrala idatzi ondoren, udal sareetan zehaztuak izan diren sektore ezberdinetan emaria neurtzeko egokienak diren ekipoak instalatuko dira, horniduraren adar nagusietako emaria eta kontsumo patroiak ezagutu ahal izango direlarik eta sarearen funtzionamendu zuzena zehaztu. Patroi horiek aztertuz mugatu ahal izango dira aurreikusitako kontsumoa gainditzen dituzten guneak eta kontrolik gabeko kontsumoak egon daitezkeen guneak (gaueko emari altuak dituztenak).

Petritegiko EUTEn sortzen da Donostiako eskualdean kontsumitzen den edateko ura. Ur hori mankomunatuak dauden udalerri bakoitzeko erregulazio-gordailuetara garraiatzen da, banaketarako goi-sarea osatzen duten garraio-arterien bidez. Banaketarako behe-sareak, berriz, lehen aipatu diren erregulazio-gordailuetatik irten eta ura erabiltzaileari entregatzen dietenak dira.

Ihes edo jarioen kudeaketa eta kontrola ezberdina da sare bakoitzean. Goi-sareetan hoditerien diametroak handiagoak dira eta hoditeriaren luzera motza, baina horien hausturak katastrofe handiak eragiten dituzte. Aldiz, behe-sareetako hoditerien diametroak txikiagoak dira baina sarearen luzera askoz handiagoa. Sare horietan ihesaren tipologia oso ezberdina da, ezkutuko ihes ugari daude baina oso banatuak.

Detektatu nahi den ihes-motak eta hoditeriaren tamainak baldintzatzen du erabiliko den teknologiaren aukeraketa.

Preskripzio Teknikoen Agirian deskribatzen da AUSAk kudeatzen dituen hornidurako goi-sareetako ihesen kontrol kudeaketarako erabiliko den teknologia.

2. AUSA-REN GOI-SAREAREN EZAUGARRIAK

AUSAk kudeatzen duen goi banaketa sarearen jatorria (aurrerantzean GBS) Petritegiko EUTEn (Astigarraga) dago kokatua. Tratamendu-gaitasuna 1.650 l/s-koa da eta GBSa lau eroanbidez osatua dago:

Deitura	Luzera (m)	Diametroak (mm)
1 adarra	9.093	1.200 / 400
2 adarra	13.879	1.200 / 300
3 adarra	23.003	800 / 100
4 adarra	5.377	700 / 100

GBSaren tipologia "adarkatua" da eta mankomunitateko udalerrietako erregulazio-gordailuetaraino iristen da. Eroanbideak urbanizatu gabeko eremuetan daude gehienbat kokaturik eta sareak ez ditu kutxatila gehiegi sarea sektorizatu eta honen egoera aztertu ahal izateko. Kutxatilen arteko tartea 500 eta 1.000 metro artean kokatzen da.

Lehen adierazi diren ezaugarriak kontuan izanik, "hidrofono korrelatzaile" deritzon teknologia hautatu da AUSAko GBSeko ihesak kontrolatzeko, hori baita bermerik onenak eskaintzen dituen teknologia 150 mm-ko diametroa gainditzen denean.

3. EKIPOEN KOKAPENA

Hidrofonoek urarekin kontaktu zuzena eduki behar dutela kontuan izanik, uretan transmititzen den soinuak jaso ahal izateko, adarretan existitzen diren bentosei elkartuta jarriko dira ekipoak.

Exekuzioaren lehen fase honetan ez dira hidrofonoak jarriko ponpaketa-estazioen eta gordailuen artean, ponpek egiten duten zaratak indargabetu egingo bailituzke emaitzak.

<u>Azkenik adierazi nahi da, 1 eta 2 adarretan instalatuko direla ekipoak.</u>

AUSAren SIGeko nomenklaturaren arabera, ekipoen kokapena hurrengoa da:

1 Adarra

Izendapena	Kokapena	Distantzia partziala (m)
R1VA01	EUTE irteerako kutxatila	0
R1VE02	Bentosa kutxatila	376
R1VE04	Bentosa kutxatila	686
Martutene EUBB	Giltzen ganbera	674
R1VE08	Bentosa kutxatila	787
R1VE09	Bentosa kutxatila	183
R1VE10	Bentosa kutxatila	835

R1VE13	Bentosa kutxatila	786
R1VE18	Bentosa kutxatila	870
R1VE21	Bentosa kutxatila	756
R1VA06	Bentosa kutxatila	864
Matia EUBB	Giltzen ganbera	354

1 adar osoaren kontrolerako 12 ekipo instalatzea aurreikusten da, kanpoan utziko den zati bakarra Amara EUPE eta Oriabenta EUBBren arteko bulkada delarik. Segmentu horrek zeharkako beste kontrol sistema batzuk ditu, emari-kontrola eta presio-kontrola hain zuzen.

2 Adarra

Izendapena	**Kokapena**	**Distantzia partziala** (m)
R2VE00	EUTE irteerako kutxatila	0
R2VE01	Bentosa kutxatila	1.187
R2VE03	Bentosa kutxatila	405
R2VE05	Bentosa kutxatila	498
R2VE15	Bentosa kutxatila	745
R2VE09	Bentosa kutxatila	789
R2VE11	Bentosa kutxatila	842
R2VE13	Bentosa kutxatila	818
R2VE22	Bentosa kutxatila	785
Alaberga EUBB	Giltzen ganbera	740
EBAP Maleo	Giltzen ganbera	496
R2VE28	Bentosa kutxatila	671
Gamongoa EUBB	Giltzen ganbera	489
R2VE33	Bentosa kutxatila	627
R2VE35	Bentosa kutxatila	789
Aranguren EUBB	Bentosa kutxatila	342

2 adar osoaren kontrolerako 16 ekipo instalatzea aurreikusten da, kanpoan utziko diren zatiak Altza EUPE eta Kanpitxo EUBBren artekoa eta Alaberga EUBB eta Darieta EUBBren artekoak izango direlarik. Segmentu hauek ere emari-kontrola eta presio-kontrola dituzte zeharkako kontrol sistema moduan.

Aurreko taula horietan adierazitako kokapen bakoitzean hoditeriara konektatzeko puntu bat egongo da, balbula eta bentosa batekin. Kontratistaren ardura izango da puntu horietan isolamendu-balbuladun hidrofonoa instalatzea, hala nola purga-balbula bat airea kendu beharko bada.

1 Eranskinean ikus daiteke aipaturiko ekipoen kokapena.

Hidrofonoak kutxatila itxietan instalatuko direla kontuan hartuz, erregistro akustikoak aztertuak izan daitezen kontratistaren zerbitzarira komunikatzen direla eta emaitzak AUSAk adierazitako plataformara konektatzen direla bermatu beharko du sistemak.

4. HIDROFONO SISTEMAREN BALDINTZA TEKNIKOAK

4.1 Ezaugarri orokorrak

Ihesak aurkitzeko sistemak (hidrofono korreladoreak dituena) landa-lana murrizten duela bermatu beharko du, bere efizientzia ondorengo irizpideetan oinarritzen duelarik:

- Irakurketa eta analisien maiztasuna.
- Irakurketa/entzute garaiak optimizatuko dira soinu-erregistroek perturbazio gutxien duten garaietara (ponpatze-estazioen funtzionamendua, trafikoa, etab.).
- Web-plataforma batean oinarritutako softwarea izango du sistemak, eta ondorengo eskakizunak beteko ditu:

  - Hidrofonoen egoeraren kontrola.
  - Eguneroko transmisioen kontrol eta kudeaketa.
  - Grafikoak eta taulen bidez jasotzen diren datuen azterketa.
  - Jasotako datuen eguneroko zerrenda.
  - Ihes-puntuen proposamenen adierazpena.
  - Korrelazioen historikoa.
  - Ihes-soinuaren grabaketen historikoa.
  - Web-plataformara sarbidea (PC, Tablet edo mugikor bidez).
  - Datuak esportatzeko API JSON protokoloa.
  - Datu guztien eskuragarritasuna "online".
  - Ekipoen egoera-diagnostikoari buruzko txostenak (bateriak, komunikazioak, etab.).
  - Txosten-sortzaile konfiguragarria, hidrofonoen arteko korrelazio guztiak jasoko ditu.
  - Web-softwareak PDF bat sortuko du korrelazio-datuekin eta hidrofono bakoitzaren datuekin; hala nola, kokatua izan den ihes-puntuaren posizionamendu azkar bat izateko lortu den korrelazioaren ikuskatzea Google Maps/Google Earth eta StreetView-en.

Hidrofonoak kudeatzeko eta monitorizatzeko softwarea aurre-lokalizazioko hardwarearen fabrikatzaileak berak garatu, instalatu eta mantendu beharko du. Ez da hirugarren enpresek garatutako software-soluziorik onartzen. Aurre-lokalizazioko hardwarearen fabrikatzailea arduratuko da, kudeaketa- eta monitorizazio-software tresna diseinatu, instalatu eta mantentzeaz.

Datuak jaso eta kudeatuko dituen plataformari dagokionez, honen helburua izango da: datuak ordenatu eta antolatu, eta hidrofonoak kudeatzeko ardura duenari lana erraztu beharko dio.

Web-plataforman oinarrituta egongo da, edozein gailutik sartu ahal izateko (PC, Tablet edo mugikorra). Plataforma honek bete beharko ditu, urteetan zehar, ondorengo eskakizunak: datuen segurtasuna, konfidentzialtasuna, sarbidea, segurtasun-kopiak eta

bateragarritasuna, programen garapen-bertsioa edozein dela ere. Kontratua indarrean dagoela garatu daitezkeen komunikazio-sistema berrietara egokitu beharko da.

4.2 Hidrofonoak

Adierazi den modura, bentosen funtzionamendu zuzena egiaztatua izan dadin, horiek ½"-ko balbula bat dute. Hidrofonoak konexio-hari bat edukiko du, eta instalazioko balbularen hariaren neurrira egokituko da.

Exekuzioan metatu daitekeen aire-poltsak purgatzeko xedearekin, hidrofonoaren eta bentosaren artean purgatzaile automatiko bat instalatu beharko da, eta instalazioa eta ekipoen funtzionamendua zuzena izan dadin muntatu beharreko ekipo eta elementu guztiak kontratistaren kontura izango dira.

Hidrofonoaren ezaugarri nagusiak izango dira:

- Bentosari konektatuko zaion hidrofonoa altzairu herdoilgaitzez egina egongo da erabat.
- Eragiketa-tenperatura tartea: -30 ºC eta + 70 ºC.
- Hidrofonoaren pisua 800 gramo baino gutxiago izango da.
- Hidrofono babes-maila: IP 68.
- Hidrofonoak tenperatura-sentsorea izango du barnean.
- Kanpoko bateria bidezko elikatzea, IP 68 babes-mailarekin.
- Bateriaren iraupena 5 urtetik gorakoa izango da. Horren aldaketa egin ahal izateko AUSAko langileei prestakuntza emango zaie.

4.3 Komunikazioak

Hidrofonoak kutxatiletan kokatzen direnez eta gehienak landa-gunetan, datuak zerbitzarira bidaliko dituen komunikazio-sistema sendoa beharko du izan eta erabateko komunikazioa bermatu, bai estaldurari bai autonomiari dagokionez.

Kontrol-puntu bakoitzean, hidrofono-sentsoretik kanpoko komunikazio-modulu bat instalatuko da, datuak datu-zerbitzarira transmititzeko eta kudeatzeko komunikazio-sarearekiko konexioa kudeatuko duena. Ondorengo ezaugarriak izango ditu:

- Hidrofonoaren eta komunikazio-sistemaren arteko komunikazioa irratiz egingo da, FSK modulazioan. Komunikazio horien irrati-banda ISM 800-900 izango da.
- Hidrofonoaren eta komunikazio-moduluaren arteko distantzia 100 metrokoa izango da.
- GPS denboraren sinkronizazioa soinuak grabatzeko, bakoitzaren frekuentzia eta dispertsioekin, zehaztasun altuko korrelazio automatikoa lortu ahal izateko.
- Sistemak ahalbidetuko du soinuaren grabaketa GPS denborarekin sinkronizatzea, 31 segundoko iraupenarekin eta WAV formatuan.
- Komunikazio-moduluak 10 segundoro soinuaren dB lagina hartuko du.
- Komunikazio-moduluak hezetasun- eta tenperatura-alarmak edukiko ditu, funtzionamendu optimoa bermatzeko.
- Sentsorearekin elkarkonektatzeko modulua eta komunikazio-modulua kutxa estanko berdinean kokatuko dira. Elementuen elikatze elektrikoa bateria baten

bidez egingo da, zeina panel fotovoltaiko baten bidez kargatuko den. Guztia zutoin berdinean kokatuko da.
- Eragiketa-tenperatura maila: -30 ºC eta + 70 ºC artean.
- Babes-maila IP67.
- Komunikazioa: irratiz 3G edo 4G.
- Bateriaren iraupena: mugagabea, eguzki-energiaz elikatua.
- Zutoinak jartzea eta multzoaren egonkortasuna eskaintzailearen kontura izango da, hala nola haren estaldura eta bateria kargatzea.

Informazio gisa, lizitatzaileek beren eskaintzan sartu beharko dituzte, Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren V. eranskinean, SIM komunikazio-txartelen kostua eta kontratuaren indarraldiko komunikazioen kostua. Antena egokiena aukeratu beharko da, hidrofonoen kokapenaren arabera. Zenbateko horiek hidrofonoen hornidurari dagokion prezioan sartuta egongo dira.

4.4 Zerbitzaria eta kudeaketa-plataforma

Sentsore bakoitzak grabatutako soinu-seinalea zerbitzari batera bidaliko da, 3G edo 4G transmisio-teknologiaren bidez. Irrati-transmisioko sistema organo eskudun batek onartua egongo da eta erabiliko dituen antenek ez dute gainditukо gailu horientzat onargarri den gehieneko irabazia.

Eskainiko den gailuak ez ditu eragingo interferentzia erradioelektrikoak.

Zerbitzariaren datuak automatikoki aztertuko dira algoritmo espezifikoen bidez. Sistemak hidrofono guztien arteko korrelazio automatikoa eta sinkronizatua ahalbidetu behar du, eta erregistratutako zaratak kategorizatzeko aukera eskaini behar du; horri esker, alarma faltsuak bereizi eta analisiaren erregistro horiek ezabatu ahal izango dira.

Hidrofonoaren ezaugarri nagusiak izango dira:

- Hodeian dagoen software bat izango da, hosting profesionalen zerbitzari seguruetan kokaturik dauden datuak dituen nabigatzailean oinarritua.
- Sistema eta honek izan ditzakeen ihesak adieraziko dira Google Maps edo Street View tresnak erabiliz.
- Ihesak detektatzeko zehaztasun-maila metro bat baino gutxiago izango da.
- Datuen biltegiratze mugagabea.
- SIGeko datuak AUSAra inportatzeko behar den tresna eduki beharko du.
- Denbora errealean ekipo bakoitza aztertzeko mantentze-modulua eduki beharko du.
- Ihesa gertatze aukerak automatikoki kalkulatzeko funtzionaltasuna edukiko du.
- Gertaerak kudeatzeko modulua izango du, lan-fluxuaren euskarriarekin.
- Ihes-jakinarazpen alarmak sortuko ditu posta elektroniko bidez.
- Ihes-alarma faltsuak ekiditeko, espektroa analizatzen duen modulua izango du.
- Soinuen histograma historikoak, frekuentzia-espektroak eta korrelazio-datuak grafikoki ikusteko aukera emango du.
- Urruneko sarbidea edukiko du edozein puntutik, eta konexio horietan behar den segurtasun-neurriak izango dituzte.
- Programa eguneratuta mantenduko da azken software eta firmware-arekin.

- Web-plataformak, ur-banaketako gailu akustikoentzako AI bidezko ikaskuntza-modulua edukiko du.

Azpimarratu behar da AUSA izango dela sarean neurtuko diren datuen jabea eta esleipendunaren erantzukizuna izango da horiek WEB plataformara edo AUSAk bere egunean adierazitako datuen kudeatzaileari modu zuzenean transmititzea.

5. EKIPOEN JARRAIPENA ETA BERMEA

5.1 Ekipoen jarraipena

Enpresa esleipendunaren erantzukizuna izango da hidrofonoak kalibratuak mantentzea kontratuak irauten duen bitartean, hala nola kokapen bakoitzeko argindarraren hornidura bermatzea.

Helburu horrekin, hidrofonoak instalatu, integratu eta esportatu ondoren (hau da, hidrofonoak muntatu eta funtzionatzen jarri ondoren), esleipendunak aztertuko ditu lortutako emaitzak eta AUSAri bidezko txostenak emango dizkio gutxienez astero. Datuak jaso eta aztertu ondoren ikusiko balitz ekipoetan edo datuetan anomaliak daudela, enpresa esleipendunak horien berri eman beharko dio AUSAri eta, halaber, txosten bat egin eta entregatu beharko dio detektatuak izan diren arazo edo/eta anomaliekin.

Ekipoen jarraipenaren kostua identifikatzen da web plataformaren eta komunikazioen kostuarekin, eta Karatulako 6. puntuan adierazten den modura ez da finantzatua izango Europar Batasunaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarekin (2020ko abenduaren 14an Kontseiluaren 2020/2094 Erregelamenduak ezarria), XXXXXX

5.2 Ekipoen bermea

Hornitutako hidrofonoen berme-epea eta kudeaketa-plataformarena 2 urtekoa izango da, jasotze-akta sinatzen den egunetik zenbatzen hasita.

Hortaz, ekipo baten matxura gertatu ezkero, kontratistak hura konpondu egin beharko du edo, beharko balitz, beste ekipo bat jarri, 10 egun natural gaindituko ez duen epe batean. Akatsa detektatzen denetik bi ordu baino lehenago egon beharko du teknikariak AUSAren instalazioetan, matxuraren edo funtzionamendu txarraren arrazoiak zehaztu eta detektatzeko eta zer egin behar den erabakitzeko.

6. AUSA-KO LANGILEEN PRESTAKUNTZA

Hidrofonoak sisteman instalatu ostean enpresa esleipendunak prestakuntza-ikastaro bat eman beharko die AUSAko Hornidura arloko langileei (3 egunekoa eta egunean 8 ordu).

Prestakuntzaren kostua eskaintzen den prezioan egongo da jasota, Karatularen 6.1 puntuan adierazten den modura.

7. DATUEN KUDEAKETA-ZERBITZUA – SISTEMAN TXERTATU ETA DOIKUNTZAK EGIN

Enpresa lizitatzaileek egingo dituzte, gutxienez, ondorengo eginkizunak:

- AUSAren UBSak (enpresaren SIGen daudenak ere) kudeaketa-softwarean sartu.
- Alerta-zerbitzuak eta txostenak. Astero txostenak egingo dira sistemaren egoerari buruz. Adieraziko dira, gutxienez, ekipoen egoera, eta gertatu diren ihesak edo egoera aldaketak.
- Ustiapen-laburpena non adieraziko den: ihes-puntuak eta arazoen konponketarako laguntza teknikoa.

Prestakuntzaren kostua eskaintzen den prezioan egongo da jasota, Karatularen 6.1 puntuan adierazten den modura.

8. GIZA-BALIABIDEAK

Karatularen 10. puntuan adierazten den gutxieneko giza-baliabideak atxikiko dizkio lizitatzaileak kontratuari.

Hidrofono-sarearen kontrola eta ihesen kokapen lanak egiten dituen teknikariaren erantzukizunak dira:

a. Hidrofonoen erregistroen harreraren eguneroko kontrola.
b. AUSAri igorri beharreko eguneroko eta asteroko txostenak egitea.
c. Ihes-puntuen identifikazio grafikoa eta AUSAren SIGen kokatu.
d. Hidrofonoen sistema konfiguratu eta doitu, hala nola AUSAk eska ditzakeen azterketa eta txostenak.

Hidrofonoetan arazoak edo akatsak detektatzen diren egunean bertan azaldu beharko du teknikariak haiek gertatu diren lekuan (hau da, Petritegiko EUTEn).

9. ETIKETATZE BERDEA ETA ETIKETATZE DIGITALA

Jarduketa honek eragin zuzena du trantsizio ekologikoan. Suspertze eta Erresilientzia Erregelamenduaren VI. Eranskinean jasotzen den Nº 041 etiketa klimatikoan sartzen da; helburu klimatikoetan %40ko ekarpena egiten du eta ingurumen-helburuetan %100.

10. INGURUMENENA KALTE ESANGURATSURIK EZ ERAGITEKO PRINTZIPIOA (DNSH)

Kontratistak eta azpikontratista posibleek bermatuko dute "kalte esanguratsurik ez eragiteko" printzipioa, 2021/241 (EB) ERREGELAMENDUAK exijitzen duten modura, Susperte eta Erresilientzia Mekanismoa zehazten duena eta Europako Parlamentuak eta Kontseiluaren 2020ko ekainaren 18ko 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikulua, zeinak inbertsio jasangarriak erraztuko dituen esparrua finkatzen duen, eta 2019/2088 (EB) Erregelamendua aldatzen duena.

Helburu horrekin erantzukizun peko adierazpena sinatu beharko dute, lizitazio honen Karatulan eranskin gisa gehitzen den eredua jarraituz, eta 202/852 (EB) Erregelamenduaren 17. Artikuluko ingurumenarekin zerikusia duten 6 helburuei buruz "kalte esanguratsurik ez eragiteko" printzipioa beteaz.

Arretaz beteko dute ondorengo irizpidea:

Erabiliko dituzten ekipoek ez dituzte izango 2011/65/EB Zuzentarauko II. Eranskinean adierazten diren substantzia mugatuak, salbuespena izango da horien pisuan kontzentrazio-balioek eranskinean adierazitakoak gainditzen ez badituzte.

Kontratistaren ekarpena izango da:

1. 1. Ekipoetan EE azalduko da.
2. Halakorik ezean, egiaztatu nahi den araua betetzen dela egiaztatzen duen fitxa teknikoa".

11. KOMUNIKAZIO BETEBEHARRAK

Erakunde kontratista eta azpikontratista behartuta egongo dira, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema konfiguratzen duen irailaren 29ko HF/1030/2021 Aginduko 9. Artikuluan xedatzen diren informazio eta publizitate obligazioak betetzera.

Bete beharko dituzte hain zuzen ere:

a. Kontratuaren xedearen jarduketetan erabiltzen diren lan-agiriak, txostenak eta edozein euskarritan modu zuzen eta nabarmenean jarriko da: "Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationEU", SEEParen logoarekin batera eta idazpuruan eta gorputzean jarri beharko da: "Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia - Financiado por la Unión Europea – NextGenerationEU".

b. Informazio eta komunikazio bideetan, edozein dela erabiltzen den kanala, esan beharko da finantzaketa Europar Batasunak egin duela Suspertze eta Erresilientzia-NextGenerationEU Mekanismoaren bidez, hain zuzen ere C5.I1. inbertsioaren tresna finantzarioaren bidez.

c. Kontratazio organoak emango ditu, kontratuak irauten duen bitartean, bide eta/edo formatu bakoitzean adierazi behar den edukia.

d. Dagokionean ondorengo erantzukizunetik salbuesten duen klausula adieraziko da: "Europar Batasunak Finantzatua - NextGenerationEU. Haatik, adierazitako ikuspuntuak eta iritziak soilik egilearenak dira eta ez dute islatzen derrigorrez Europar Batasunaren edo Europako Batzordearen iritzia. Ez dira horien erantzule izango ez Europar Batasuna ezta Europako Batzordea".